

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

BERGARAKO UDALA

*Iragarkia*

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEKO iragarkiaren bitartez, 2022ko martxoaren 29an argitaratu ziren lehiaketa-oposizio bidez obra eta zerbitzuetako brigadarako elektrizitateko arduradun plaza betetzeko hautaketa-prozesua arautzeko oinarriak.

Laugarren oinarriko a) puntuan eta eranskinean, Berariazko Gaitegian jasotako gaietan, akatsak sumatu direnez zuzenketa egiten da:

1. Laugarren oinarriko a) puntuan:

— *Honela dioenean:*

«Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.»

— *Honela esan behar du:*

«Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko Hirugarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.»

2. Eranskinean, 4. gaiak:

— *Honela esaten duenean:*

«4. Intimitateari buruzko eskubide konstituzionala. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa: 4. artikulua: 1 eta 2 zenbakiak.»

— *Honela esan behar du:*

«4. Intimitateari buruzko eskubide konstituzionala. 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen: II. Kapituluko 5.1 artikulua.»

Interesdunei jakinarazpen eraginetarako argitaratzen delarik.

Bergara, 2022ko maiatzaren 4a.—Alkatea. (3382)

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Anuncio*

Mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 29 de marzo de 2022 se publicaron las bases que han de regir el proceso selectivo mediante concurso-oposición para la provisión de 1 plaza de encargado/a de electricidad para la brigada de obras y servicios.

Habiéndose observado errores en el punto a) de la cuarta base y los temas recogidos en el Temario Especifico del anexo, se procede a su corrección:

1. En el punto a) de la cuarta base en:

— *Donde dice:*

«Las personas aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base Segunda de la convocatoria, referido siempre a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.»

— *Debe decir:*

«Las personas aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base Tercera de la convocatoria, referido siempre a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.»

2. En el enunciado del 4. tema:

— *Donde dice:*

«4. Derecho constitucional a la intimidad. Artículo 4: apartados 1 y 2 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.»

— *Debe decir:*

«4. Derecho constitucional a la intimidad. Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos. Artículo 5.1 del Capítulo II.»

Se procede a su publicación a efectos de notificación a los interesados.

Bergara, a 4 de mayo de 2022.—El alcalde. (3382)